

**2015EKO MAIATZAK 1A ARAMAION GOTZONEN  
LAGUNEN URTEKOKO GOMUTA ETA ESKER  
ONA, GURE LAGUN, EREDU ETA MAISU GOTZON  
GARATE JAUNARI**

1) Arabako herria  
dugu ARAMAIO,  
Gipuzkoa ta Bizkaia  
gogozko sozio,  
ofiziaki berriz  
ARABA tradizio,  
Gipuzkoar Bizkaitar  
batzutan desio,  
hiru lurraldez gozaz  
jarrai usadio.

2) **JANE ETA JESUSA**  
**Duhalde, Oleaga,**  
Joan zaizkigunei  
Hemendik eupada,  
Jaingoikoak hor goian  
ditzala anpara,  
gure oroimen bizi  
negar zein algara,  
Gotzon gogoan dela  
elkarri bultzada.

3) Gaur hona etortzeko  
zortea izana,  
eskertzen dut bihotzez  
egia esanda,  
antolaketa ona  
KOLDO KATXOn lana  
lotu egiten gaitu  
osa panorama,  
Iparra eta Hegoa  
ez daitezen bana,

4) Alaitasun uneak  
ez dira gehiegi,  
aukerak diranean  
bide horri segi,  
pozik bizi gaitezen  
ez da ez goizegi,  
norbera pozik bizi  
horrela ageri,  
esker onez gozatu  
lagun zein famili.

5) Euskaldun jarraitzeko  
aldaketa behar,  
Paris eta Madrilek  
hartzen dute elkar  
eskatzen dugunean  
erantzunez zakar,  
euskaldunak baturik  
ulertuaz elkar,  
jokabide zuzenak  
onura asko dakar.

*Pilare Baraiazarra Txertudi*